# ISEI - IVEI

## Rs1.2.6. CURRICULUM KONPETENTZIA LHko 4. MAILAN: GIZARTEA ETA HERRITARTASUNA.

ISEI·IVEI

**Edizioa: 2014ko martxoa**
**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**
Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**LAN TALDEA**
Araceli de Francisco
Inmaculada Tambo
José Ramón Ugarriza
Mª Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**
Mª Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**
Eduardo Ubieta

**Sarrera** **4**

**Rs1.2.6.1 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* eta konpetentziaren dimentsioetan *(Gizarte errealitatea; Herritartasuna; Bizikidetza)* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.** **6**

**Rs1.2.6.2 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.** **7**

**Rs1.2.6.3 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).** **8**

**Rs1.2.6.4 taula: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza eta probaren hizkuntza.** **9**

**Rs1.2.6.4 grafikoa: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza eta probaren hizkuntza.** **10**

## GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2010 eta 2013[1].

Adierazle honek Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2010 eta 2013. urteetan gauzatu ziren Ebaluazio Diagnostikoetan lortutako emaitzak dira. Ebaluazioan 250 puntuko batez bestekoa finkatu da, 50 puntuko desbiderapen tipikoa eta hiru errendimendu-maila.

Emaitzak zenbait aldagai kontuan izanik aztertu dira: ikasleen sexua, indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmailarekiko egokitasuna (jaioturtea eta irakasmaila), irakasteredua[2], eta hezkuntza-sarea[3] (geruzak), gurasoen ikasketa mailarik altuena, jaiolekua eta etxeko hizkuntza eta probaren hizkuntza.

2013an, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen artean, % 50,1ek ikastetxe publikoetan ikasten du, eta % 49,9k ikastetxe itunduetan. Proportzio hau 2009tik hona mantendu da, ia aldaketarik gabe.

2013an, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* batez besteko puntuazioa 251 puntukoa izan da, 2010ko batez besteko puntuazioa (250) baino puntu 1 gehiago. 2010eko eta 2013ko ebaluazioetan neskak batez besteko puntuazioen gainetik kokatzen dira eta mutilak, berriz, batez besteko puntuazioen azpitik.

*Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren* hiru dimentsioen bilakaera aztertzen badugu, nesken puntuazioak *Herritartasuna* eta *Bizikidetza* dimentsioetan 2010-2013 aldian handitu direla ikus daiteke (2 puntu eta 1 puntu, hurrenez hurren); mutilen puntuazioak, berriz, *Gizarte errealitatea* dimentsioan handitu da (1 puntu). 2013. urtean, nesken puntuazioak mutilenak baino altuagoak izan dira ebaluatutako hiru dimentsioetan, eta alderik altuena *Bizikidetza* dimentsioan izan da (12 puntu).

2013ko Ebaluazio Diagnostikoan *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* ikasleen banaketa errendimendu-mailen artean honako hau izan da, ehuneko handienetik txikienera: erdi-mailan ikasleen % 48,4 egon da, maila aurreratuan, ikasleen % 32,4 eta hasierako mailan % 19,2. Maila aurreratuan eta erdi-mailan nesken ehunekoa mutilena baino 7,6 puntu eta 1,2 puntu handiagoa izan da, hurrenez hurren. Hasierako mailan mutilen ehunekoa 8,7 puntu handiagoa izan da neskena baino. 2010-2013 aldian, ikasleen ehunekoaren bilakaera altuagoa izan da hasierako mailan (1,3 puntu) eta maila aurreratuan (2 puntu), eta baxuagoa erdi-mailan (3,3 puntu).

---

[1] Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2010 eta 2013. Txosten orokorra. http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm

[2] EAEn hiru irakasteredu daude: A eredua (irakas-hizkuntza gaztelania), B eredua (irakas-hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D eredua (irakas-hizkuntza euskara).

[3] EAEn bi hezkuntza-sare daude, publikoa eta itunpekoa, biak diru publikoarekin finantzatuak.

2013ko geruzetako batez besteko puntuazioak aztertzen baditugu, puntuaziorik altuena itunpeko A ereduan (285) izan dela ikus daiteke, eta gero itunpeko B (254) eta D (253) ereduetan. Sare publikoaren barruan, puntuaziorik altuenak A (247) eta D (246) ereduetan izan dira, eta puntuaziorik baxuena, B ereduan (238). 2009-2013 aldian, ikasleen batez besteko puntuazioak proportzio handienean handitu dira A eredu publikoan (7 puntu) eta itunpekoan (10 puntu), eta gero D eredu publikoan (2 puntu); gainerako geruzetan batez besteko puntuazioa egonkor mantendu da (itunpeko B eredua) edo arinki jaitsi da (itunpeko D eredua eta B eredu publikoa).

2013an, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* erdi-mailan eta maila aurreratuan ehuneko handiena duten ikasleen profila honako hau da: adinagatik dagokion irakasmailan dago (% 82,8), autoktonoa da (% 81,3) eta ISEK indize altua du (% 86,8). Erdi-mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila hau da: irakasmailarik errepikatu du (% 56,1), etorkina da, (% 73,2), eta ISEK indize baxua du (% 72,1). 2010-2013 aldian, euskal ikasleen ezaugarriak ez dute aldaketa handirik jaso, bi kontutan izan ezik: gurasoen ikasketa maila handitu egin da, eta halaber, proba euskaraz egiten duten ikasleen proportzioa handitu da euskara familia-hizkuntza bezala erabiltzen ez duten ikasleen artean.

## Rs1.2.6.1 taula eta grafikoak:

**LHko 4. mailako ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* eta konpetentziaren dimentsioetan *(Gizarte errealitatea; Herritartasuna; Bizikidetza)* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.**

| | | 2010 | 2013 |
|---|---|---|---|
| **Guztira** | Guztira | **250** | **251** |
| | Neskak | 256 | 257 |
| | Mutilak | 245 | 244 |
| *Gizarte-errealitatea* | Guztira | **250** | **250** |
| | Neskak | 255 | 254 |
| | Mutilak | 245 | 246 |
| *Herritartasuna* | Guztira | **250** | **250** |
| | Neskak | 253 | 255 |
| | Mutilak | 247 | 245 |
| *Bizikidetza* | Guztira | **250** | **250** |
| | Neskak | 255 | 256 |
| | Mutilak | 245 | 244 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2010 eta 2013.

## Rs1.2.6.2 taula eta grafikoak:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.**

| | HASIERA Errendimendu maila | | | ERDIA Errendimendu maila | | | AURRERATUA Errendimendu maila | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak |
| 2010 | **17,9** | 14,3 | 21,2 | **51,7** | 51,8 | 51,6 | **30,4** | 33,9 | 27,2 |
| 2013 | **19,2** | 14,7 | 23,4 | **48,4** | 49,0 | 47,9 | **32,4** | 36,3 | 28,7 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2010 eta 2013.

### Rs1.2.6.3 taula eta grafikoak:

**LHko 4. mailako ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* lortutako batez beste puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).**

| | 2010 | 2013 |
|---|---|---|
| A Publikoa | 240 | 247 |
| B Publikoa | 239 | 238 |
| D Publikoa | 244 | 246 |
| A Itunpekoa | 275 | 285 |
| B Itunpekoa | 254 | 254 |
| D Itunpekoa | 255 | 253 |
| Guztira | 250 | 251 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2010 eta 2013.

## Rs1.2.6.4 taula:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza eta probaren hizkuntza.**

| | | Ikasle % | | Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2010 | 2013 | 2013 | | |
| ISEK | Maila baxua | 16,0 | **17,1** | 27,9 | 49,0 | 23,1 |
| | Maila ertain baxua | 24,2 | **24,9** | 23,3 | 51,3 | 25,4 |
| | Maila ertain altua | 26,6 | **26,9** | 16,6 | 48,6 | 34,9 |
| | Maila altua | 33,2 | **31,1** | 13,2 | 45,8 | 41,0 |
| Egokitasuna | Adina bat dator ikasmailarekin | 91,6 | **92,7** | 17,2 | 48,6 | 34,2 |
| | Adina **EZ** dator bat ikasmailarekin | 8,4 | **7,3** | 43,9 | 46,0 | 10,2 |
| Titulartasuna | Publikoa | 50,1 | **50,2** | 21,6 | 50,5 | 27,8 |
| | Itunpekoa | 49,9 | **49,8** | 16,7 | 46,3 | 37,0 |
| Gurasoen ikasketa mailarik altuena | Derrigorrezko ikasketak bukatu **gabe** | 3,1 | **3,6** | 18,9 | 48,6 | 32,5 |
| | Derrigorrezko ikasketak | 12,7 | **14,2** | 19,5 | 48,3 | 32,2 |
| | Batxilergoa, HZ | 34,0 | **36,0** | 18,9 | 48,4 | 32,6 |
| | Goi mailako ikasketak | 41,2 | **46,3** | 18,9 | 48,9 | 32,3 |
| Jaioterria | Autoktonoa | 93,9 | **94,8** | 18,7 | 48,3 | 32,9 |
| | Emigratzailea | 6,1 | **5,2** | 26,8 | 51,4 | 21,8 |
| Familia-hizkuntza* euskara | Probaren hizkuntza euskara | 97,1 | **97,0** | 13,6 | 47,2 | 39,3 |
| | Probaren hizkuntza gaztelania | 2,9 | **1,9** | 10,1 | 29,2 | 60,7 |
| Familia-hizkuntza* euskara **EZ** | Probaren hizkuntza euskara | 69,9 | **80,4** | 23,9 | 52,4 | 23,6 |
| | Probaren hizkuntza gaztelania | 30,1 | **19,1** | 8,9 | 34,3 | 56,8 |

*2010. urtean, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2010 eta 2013.

## Rs1.2.6.4 grafikoa:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza eta probaren hizkuntza. 2013. urtea.**




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2013.